



ETXETIK ETXERA

IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

I·M CASERIO MUSEO
IGARTUBEITI
BASERRI MUSEOA



GIPUZKOA
KULTURA

[www.SOINUMAPA.NET](http://www.soinumapa.net)

Kaixo!

Ni Martintxo nauzu.



NOR ZARA ZU?



NON BIZI ZARA?



NOREKIN BIZI ZARA?





Ni Ezkio izeneko herri
txiki batean bizi naiz,
Igartubeiti Baserrian,
Igartubeiti, honela du
izena nire etxeak. Zure
etxeak ba al du izenik?



ZEIN DA ZURE ETXEAREN IZENA?



AUKERATZERIK IZANGO BAZENU,
ZEIN IZEN JARRIKO ZENIOKE?



Nire etxea aspaldi
aspaldiko baserria da,
500 urte ditu, bertan bizi
naiz nire familia eta
animaliekin. Animaliek
ere ukuiluan euren
txokoa dute baserrian!



Gainera nire etxea, lantokia ere bada! Goiko solairuan sagar zukua egiteko makina handi bat dugu, Dolarea deitzen zaio. Eta arotz lanetan ere ibiltzen gara!





MARTINTXOK KONTATUTAKOAREKIN, NOLAKOA IRUDIKATZEN
DUZU IGARTUBEITIKO BASERRI INGURUA?
MARRAZTU HEMEN:

NOLAKOA DA ZURE ETXE INGURUA?






MARTINTXOK KONTATU MODUAN, BERE ETXEAN TXOKO
EZBERDIN UGARI DAGO: LANERAKO, ANIMALIENTZAKO...

ZIUR ZURE ETXEAN ERE TXOKO EZBERDINAK


BADITUZULA. MARRAZTU EZAZU PLANO BAT HURRENGO
ORRIAN!

PLANOA, ZURE ETXEA NOLAKOA DEN ERAKUSTEN DUEN
MARRAZKI EDO MAPA BAT DA!





MARRAZTU HEMEN ZURE ETXEKO PLANOA





ETXEAN LAN EZBERDINAK GUSTORA ETA EROSO
EGITEKO ZENBAIT GAUZA ERABILTZEN DITUGU.
ETXEKO ZEIN LEKUTAN KOKATUKO ZENITUZKE
DATOZEN ELEMENTUAK:



BEROGAILUA



URA



JANARIA/ELIKADURA




ARGINDARRA



Zure etxean kokatu dituzun
elementuak nirean ere
ezinbestekoak dira. Baina
seguru ez dutela itxura
bera... datozen objektuak
zertarako erabiltzen diren
ba al dakizu?



1




2






3




4



KOKATU OBJEKTU BAKOITZAREN ZENBAKIA BASERRIKO PLANOETAN





DOLAREA

LEHORTEGIA

ARozTEGIA

ERLAUNTZAK



Antzekoak al dira
zure etxea eta nirea?

Webguneko baliabideak erabili:




Prest al zaude nire
etxera pixka bat
gehiago
hurbiltzeko?





Baserrian erne
bagabiltza, soinu
ugari entzungo
ditugu. Ezagutzen al
dituzue soinu
hauek?


SOINUAK ZEIN IRUDIREKIN LOTUKO ZENITUZKE?












Erne entzuten badugu
soinuek istorio asko
kontatzen dizkigute.
Baita marrazkiek ere!







Hemen dituzuen
marrazki hauetatik
abiatuta, bururatzen al
zaizue zer gertatzen
ariko den baserrian?

OSATU KOMIKIA









Eta zure etxean?
Nolako lanak burutzen
dira egunero-
egunero?